**2026KO MARTIAREN 13A**

# begoñazpi

## ale berezia

EBI elizbarrutiko ikastetxeak

begoñazpi ikastola

FIRST LEGO LEAGUE

# URTE ASKOTAKO AHALEGINAREN EMAITZA



BARRIRO BE, BEGOÑAZPI IKASTOLAK BARRIRO LORTU DAU AURKEZTUTAKO TALDE BIAK FIRST LEGO LEAGUEKO ESTATUKO FINALEAN SARTZEA. EZ DA KASUALITATEA.

* Irudian, Bizkaiko Foru Aldundiko Begoñazpi Ikastolako talde irabazleak, Elixabete Etxanobe Ahaldun Nagusiak eginiko harreran.

# Aspaldiko ibilbide landua

Jueves 13.03.14
EL CORREO


La ikastola Begoñazpi impartirá robótica en todos las etapas educativas

2014tik eskola-curriculumean TXERTATUTA, Haur Hezkuntzatik Batxilergora, Begoñazpi Ikastolan robotika eta STEAM diziplinak bereizgarriak dira. Aurten be, Ikastolako talde bi robotika, zientzia eta teknologia txapelketa dan es FIRST LEGO Leagueko finalera iritsi dira.



Holan dala, urte askotako lanaren fruituak jasotzen jarraitzen dogu. Ibilbide luze eta landu hau, Ikastolaren eta hezkuntza-komunitatearen konpromisotik eta proiektu pedagogikoaren kalitatetik sortua da.

## MAKINA ETA EGITURA ERRAZAK HAUR HEZKUNTZAN

Makina eta egitura errazak erabiliz hasten jakuz 4 eta 5 urteko ikasleak robotikan eta programazioan. Apurka-apurka bada be, tresna horreek espazioa eta denpora ulertzen, pentsamentu logikoa suspertzen eta sormenez hainbat erronka gainditzen laguntzen deutsee.

## ITZELEZKO LANA LEHEN HEZKUNTZAN

YouTube



Lehen Hezkuntzan be oso azkar joaku robotika. Horren adierazle da programazioa eta erronka robotikoak praktikan jartzeko jardunaldia dan Legoñazpi Day Juniorrean gure neska-mutilek erakusten deuskuen lana. Esan beharrik ez dago, jarduera horreekaz guztiekaz logika eta arrazoiketa, talde-lana, arazoen ebazpena... lantzen dabezala.

## FLL-RAKO BIDEA BIGARREN HEZKUNTZAN ETA BATXILERGOAN



Eskola-curriculumaren barruan, DBHko eta Batxilergoko 1. mailako ikasleek Teknologia ikasgaia lantzen dabe, eta taldeka, zientzia- eta robotika-proiektuak egiten dabez. Talde horreetako bi First Lego League Euskadira joango dira.



## FINAL HANDIRA HELDU DIRAN PROIEKTUAK

Estatuko finala jokatuko daben talde biek arkeologiaren gaineko proiektu zientifiko barritzaileak aurkeztu dabez. Burututako lanek, meategiekin eta artelanekin zerikusia dabe. Hona hemen ikusgai:


BERRIAK

2026(E)KO MARTXOAREN 09(A) 14:08

**Ahaldun nagusiak harrera egin die Euskadiko FIRST LEGO Leaguen Estatuko finalerako sailkatu diren Bizkaiko taldeei**

EKONOMIA SUSTATZEKO SAILA

Bizkaiko bost eskola-taldek hartuko dute parte Estatuko finalean, Euskadiko FIRST LEGO League txapelketan lurraldeko 1.139 ikasle parte-hartzaileen artetik sailkatu ondoren (Bilboko Begoñazpi ikastolako bi talde eta Madre de Dios ikastetxeko talde bat, Portugaleteko Eduroboticeko bat eta Markina-Xemeingo Bera Kruz ikastolako beste bat)

INFO GEHIAGO | MÁS INFO